



Gatikako udala
Bizkaia

2013ko abenduaren 4ko EZ OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: 20.00
BUKAERA ORDUA: 20.01

Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 4.- Naiara Beldarrain Fullaondo.
- 5.- Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea
- 6.- Unai Arrizabalaga
- 7.- Unai Arruza Elorduy.
- 8.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga.

Ez da etorri baina horretarako arrazoiak emon ditu: Maite Lekanda Bilbao.

Idazkaria: Elena M. Gonzalez.

Aztergaiak:

1.-Aktak

2013.11.20 eta 2013.11.13 plenoko aktak aho batez onartu dira.

2.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordenantzaren aldaketa.

“Laugarren artikulua aldatu da atal berri baten atxikimendu bidez eta hurrengo testua izanik:

2.Hurrengo hobariak ezarriko dira:

%100 aren hobaria izango dute ibilgailu historikoek eta gutxienez, 25 urteko antzintasuna dutenek. Urteak egindako datatik aurrera zenbatuko dira, edo datu hau jakingo ez balitz, matrikulazio-alta egunekoa hartuko da, edo dagokion mota edo aldaera egiteari utzi zitzaion data.



Gatikako udala

Bizkaia

Oro har, hobaria ematearen efektua eskaera-dataren hurrengo ekitalditik aurrera hasiko da eta ez du atzeraeraginezko efekturik. Hala ere, hobaria eskatzen denengan likidazioa irmoa izan baino lehen, honek eskaera egiten den ekitaldian izango du eragina, baldin eta beharrezkoak diren baldintzak zergaren sortzapen-datan betetzen badira.”

Bozkatu egiten dute:

Aho batez onartu egin da (8 baiezkotoak)

20.01ean amaitu egin da ez ohiko osoko bilkura hau.

ALKATEA

IDAZKARIA